

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Artxibo Orokor zaharreko estalkia birgaitzeko obrak hasi dira

Lanak Nafarroako Jauregia birmoldatzeko plan zabalago baten barnean sartzen dira, 2017an egingo dena

Asteartea, 2016.eko urriak 18

Artxibo Orokor zaharreko estalkia birgaitzeko lanak, Nafarroako Jauregiaren barnean dagoena, hasi dira jadanik 215.564,64 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne.

Hiru hilabeteko egikaritze epea duten obrak ACR Rehabilitación Sostenible, S.L.U enpresak egingo ditu; erkidegoko atalaren azpitik prozedura irekiaren bidez egindako lizitazioaren esleipenduna izan da aipatutako enpresa.

Artxibo zaharraren birgaitze integrala egiteko aurreikuspena badago ere, estalkia konpontzeko lanak lehenbailehen hastea komeni dela iritzi da; izan ere, kontserbazio-egoera txarrean dago, horrek ura sartzea dakar eta higiezina azkar hondatzea. Eraikinaren fatxada San Ignazio etorbideko lorategietara zabaltzen da, 2.000 metro koadro ditu, eta Iruñeko Udal Planaren Katalogoan dago 2. babes-mailarekin.



Artxibo Orokor zaharraren estalkiko ikuspegi orokorra.

Obrek 2017an izango dute jarraipena

Artxibo zaharreko obrak hurrengo urtean izango dute jarraipena eraikinaren barnaldea birgaitzen denean (1.534.010 euroko aurrekontua).

Gainera, kanpoko lorategian jardungo da ibilgailuen sarrera errazteko. Zehazki, ekialdeko nahiz mendebaldeko parterreak murriztea aurreikusten da San Ignazio etorbideko hesian kokatutako ateko sarrera alboan zolatutako bi gune

prestatze aldera. Nolanahi ere, egingo den birmoldaketak lorategiko egitura errespetatuko du.

Bestalde, aurten larrialdiko argien jarduerak eta suteak detektatzeko jarduerak lizitatu dira Nafarroako Jauregiko eraikin nagusian (118.380,64 euro, BEZa barne). Obra horiek aurten egingo dira, eta izapidean sailkatutako jarduera-proiektuen barnean daude eraikinak jarduera-lizentzia izan dezan, Iruñeko Udalak emateko zain dagoena.

Nafarroako Jauregirako plan orokorra

Hondatzeak ez dio Artxibo zaharreko eraikinari bakarrik eragiten, Nafarroako Jauregi osoari baizik, 2015eko irailean dagoeneko Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari Maria Jose Beaumontek azaldu zuen moduan.

M^a Jose Beaumontek gaur goizean esan du Nafarroako Jauregiaren egungo egoera "aurreko Gobernuen utzikeriaren ondorioa dela". Kontseilariak birgaitze-obrak justifikatu ditu "herritarrentzat eraikin ezagun bat delako, eta Nafarroako Gobernuak kontserbatzeko lege-betebeharra eta morala duela; hala, eraikina legeztatu ahalko da, epe laburrean espazioen erabilera urria konponduko da eta espazio berriak baldintza duinetan jarriko dira bertako enplegatuentzat".

[Hautemandako arazo](#) en artean, kontseilariak lan egiteko prest dauden espazio urriak aipatu ditu, instalazio elektrikoan dauden akatsak, erredimendu eskaseko argiztapen-sistemetan daudenak, kanpoko arotzeriak egoera tamalgarrian daude, lorategiko iturrian ura sartzen da, hezetasun-arazoak daude, ondare historiko artistikoarenak diren egurrezko piezetan xilofagoak daude (Tronuko Aretoko sabaia), erlitzak eta harrizko izkinak hondatuta daude (zartiak askatzen dira), jauregiko balkoietako burdinezko barandak herdoilduta daude, heldulekuak deformatzen eta altxatzen dituzten dilatazioekin...

Egoera hori ikusirik, Beaumont kontseilariak bere garaian [esku hartze orokorreko plan](#) baten aurrerapena aurkeztu zuen; haren bidez, erabilerak legeztatu eta arrazionalizatu nahi dira, mantentze lana bermatu eta hondatze-prozesua eten.

Galería de fotos



Beaumont kontseilariak Artxibo zaharreko eraikinaren aurrean hedabideen aurrean hitz egiten.



Beaumont kontseilaria Nafarroako Gobernuako arkitekto Pedro Lopezekin hitz egiten birgaituko den estalki alboko terraza batean.



Obrarako Artxibo zaharrearantz jarritako aldamioen ikuspegia.